

ZENBAKIAK

Cvetka Bevc



Itzulpena: Juan Mari Mendizabal Sarasua

bestehitzak
||| |

drugebesede
||| |

Co-funded by the
Creative Europe Programme
of the European Union



ZENBAKIAK

Cvetka Bevc

1.

45° 42' 15" iparrera eta 14° 27' 58" ekialdera, pasatu zaio burutik AEBetako Aire Armadako John Willkinson tenienteari hegazkinaren motorrak orroka hasi direnean. Zenbakiak errepikatu ditu, batuketak egin ditu, biderketak, zatiketak, konbinazio desberdinak asmatu ditu, matematikan babes bila, zenbakiekin jolastea aizto bihurtu da, beldurra eta erretzen ari den bere hegazkinaren oroipena txikitzeko aizto, irudiak xehatu arte, eta horregatik ari da bere bosterako behin eta berriz errepikatzen Nadlesk-eko aireportu militarren koordinatuak; Piccadilly Club bezala agertzen da bere mapan, Westminsterreko errepede nagusiaren izena hartuta, 100 Piccadilly moduan ere ezaguna izan arren, alegia, Ingalaterrako lurraldean estatubatuarrak Bigarren Mundu Gerran zeukaten lokaletako bat, soldaduei aisialdia eta prostitutak eskaintzeko, eta haren funtzionamendua mehatxagarria kontsideratua izan zen ingeles eta estatubatuarren arteko harreman onetarako.

Baina une horretan John Willkinson ez da pentsatzen ari aireportuaren izenez, gogoan baitzuen Detroit ezizena jarri zioten -AEBetako hiri hartan bizi ohi zelako- adineko partianoak esplikatu ziola non zegoen kokatuta, eta abagunea probestu zuela bere pasadizotxo bat kontatzeko gatza ateratzeaz Detroiteko Gatz Meategian, zeinean emandako bi hamarkadetan, gatza atera ez ezik, ingelesa ikasi eta erreumaz gaixotu baitzen, eta etxera itzuli gerra hasi baino lehentxeago. Bere anaiaren etxean bizi izan zen harik eta gau batean, Italiak kapitulazioa sinatu eta hilabete batzuetara, partianoek beraiekin eraman zuten arte, «estatubatuarrak datoz, eta haiekin hitz egin behar da», esan zuten, anaia Goardia Zuri antikomunistan zebilela aintzat hartu gabe; eta Detroitek koronelarekin hitz egin zuen, hala deitzen baitzion Willkinsoni, maila kontuan hartu gabe, partianoen ospitalera eraman zuten unetik.

Baina une honetan tenientearen buruan ez dago ezta Detroit ere, koordinatuak borrokan ari dira zaurituak garraiatzeko hegazkin batean italiar base militarretako batera eraman dezaten ideiaaren aurka. Hegazkina aireratu denean, dardara kontrolaezin batek hartu du. Zenbaketak egiteak ez du laguntzen dagoeneko. Oroitzapen txikituak supituki itzuli zaizkio irudi bat osatzeko, geroago argitu beharko duena 1944ko abuztuaren 15eko data eramango duen txosten batean. Bere P38 hegazkineko motorretako batek funtzionatzeari utzi zion jada lehen jomugari argazkiak egin bitartean, alferrikakoa zen pentsatzea teknikariek zergatik ez zuten akatsa hegaldi aurreko segurtasun frogetan aurkitu, berehala ahaztu behar izan zuen hegazkin batean errakuntzak hilgarriak izan daitezkeela bake garaian, eta gerra garaian, zer esanik ez, hegaldiarekin jarraitu

behar du, egitekoa burutu, motorretako bat gabe ere egin daiteke, etsaiaren Alemaniako jomugak garrantzitsuak dira, Villach trenbide hiriari oraindik argazkiak atera behar dizkio, tiroak urrun daude oraindik, ez, hurbiltzen ari dira, gora jo behar du, ez da hegazkinen arteko su gurutzatuaren erdian aurkitzen den lehen aldia, ez, zazpigarren aldia da, zazpi zorioneko zenbakia da, larrua salbatuko du, tiroek bere abioia kaltetu izanagatik ere, irtenbide bat dauka, Jugoslaviako kostalderantz hegaldatu daiteke, mapa irudikatu du bere gogoan, ezin du atzera begiratu, baina nahi gabe okertu du burua, suak itsutu egin du, begiak kiskali dizkio, erresuminduta dauka aurpegia, su horretatik ihes egin behar du, ez da jendea bakarrik hiltzen, hegazkinak ere hil egiten dira, salto egin behar du, ez dago P38ri agur esateko betarik, beste hegazkin bat lortu dezake, baina tira, agur, adiskide zaharra, orroka ari haiz animalia zauritu bat bezala, haren gorputzean zerbaitek iraun behar du bizirik, agian metalezko bihotza dauka, bat, bi, bost, zenbatu, zenbatu segundoak, lurreratze garaia baita; nekez zabaldu ditu begiak, ilunpearen erasoan, lurralde menditsuan dago, iruditzen zaio udako eguerdi hartako argia borrokan ari dela puntu beltzen aurka, kontuz ibili beharko du bere zangoekin, ezin ditu begiak zabaldu, zangoetan sentitzen duen mina begietakoa baino biziagoa da, gero iluntasuna hedatu da nonahi, sorgortasuna, gorputzaren pisua beruna bezalakoa, zortzi, bederatzi, hamaika, errepikatu du behin eta berriro konortea ez galtzeko, zurrunbiloak barrura zurrupatu ez dezan; hori gertatu baino lehen, ordea, berriz esan du: zazpia zorioneko zenbakia da.

Zazpia zorioneko zenbakia da, errepikatu du, xuxurlaka, hitzak eskakizun bilakatu dira, madarikazio, otoitz, zazpi zenbakia jauzika bere kranioaren barruko lekuren batean, haren eragina patuarena bezalakoa balitz bezala; azken batean, antzeko zerbaitek gertatzen zen Isonzo-ko guduetan muinoetako jendeak zeukan gerrari ospearekin, halaxe esan dio Detraiten, zeinaren aita Austrohungariar Armadan izan baitzen: patua aurretik erabakita dago, gudua baino lehen aurretik erabakita dagoela jakiteak halako bake bat ekartzen du, Bosniako musulmanek bazekiten Koranak badio erori egingo zarela, orduan erori egingo zarela, eta bestelakorik badio, bizirik iraungo duzula; baina John Willkinson tenienteak bizirik iraun nahi du, berriro ikusi nahi du aurrena, zer arraio dela eta estali dizkiote begiak Snežna Gora mendi azpiko ospitaletik andetan atera dutenean, konspirazioa, esan du Detraiten, amaiera arte ondoan izan duenak, kaka zaharra, nola gogoratuko zituen haitzarte, itsas labar eta arroka haiek guztiak, zuhaitzak eta errekek, eta are gutxiago ulertu inguruan sentitzen zuen solas motela, ikasi duen bakarra izan da eskerrik asko eta topa esaten Detraiten edateko zerbaitek eskaintzen dionean, baina begietako lotura kendu dezake, jadanik besoak jasotzen ari da ikusmena askatzeko, baina iritziz aldatu da, erabaki du ez duela ikusi nahi zenbat zauritu dituen ondoan hasperenka, baina bai, ezagutu egin du begiak artatu eta hanka hautsia konpondu dion medikuaren ahotsa, beraz, mugitu egin da, berriro borroka bizian zenbakien nagusitasunaren alde, beldurra poroetatik sartu zaio honezkero, haren usain garratza sumatu du, hortz-haginak karraskatu ditu, bere amak eskolara joan aurretik prestatzen zizkion gosariak

bururatu zaizkio: astean bost aldiz, sagar konpota, ogi opilak eta krepeak astigar jarabearekin, astean bitan laranja zukua eta arrautzopilak gazta eta hirugiharrarekin, gosetzen ari da, jarraitu du Connecticuteko goizak oroimenera ekartzen, eguzkitutako gosari mahaia, eta garraioa hasi aurretik norbaitek eskuan jarri dion ogi puska, ordu arte eskuineko eskuan sendo heldu diona, murtxikatzen hasi da; ohituta dago gosetuta egotera eta oso janari gutxi ahoratzera, astiro-astiro murtxikatu behar da urdaila beteta daukazula sinesteko, hozkadak zenbatu ditzake, bost, sei, atzera, atzera zenbakietara, azpiratu egingo du porrota, horretarako ogiaren eta zorioneko zenbakiaren laguntza beharrezkoa badu ere.

Jatorria zenbakian dago, horregatik aurkitzen dira zenbakiak nonahi: bizitza eta heriotza adierazleetan, azkenean gerra datu huts bihurtzen da, historia liburu batean idatzitako biktima guztien batuketa, urteek mugatzen dute garaipen batetik hurrengora -edo porrotera- doan denbora.

Eta horrela, besterik gabe, John Willkinsonen buru barruko zenbakiek helduleku berri bat dute, gosari kontuak ahaztu eta herrialde ezohiko honetan eman dituen egunetara itzuli da, hogeita hiru egun joan dira lurreratu zenetik, bizkor atara ditu kontuak, 33.120 minutu zehazki, segundoak zenbatzea ez du merezi, baina agian ez da zenbakien premia gehiagorik izango, bat-batean erlaxatuta sentitu baita, eragozpenak gorabehera seguruagoa delakoan airean ibiltzea lur gainean baino, zer pentsatzen ote dute hegaztiak hegazkin bat ikusten dutenean, baina beren kumeei Lur hitza irakatsiko diete hegan ikasi baino lehenago ere, non pausatu jakin dezaten; hegaztiak, zeruaren jabeak, anaiarteko laguntza pilotuentzat, ez du ahaztu behar pilotua dela, Estatubatuar Aire Armadako kide entrenatua. Eta bere aldetik itxurarik gabekoa izango litzateke garraiorako abioi batean hiltzea. Ezin gerta daiteke. Halako heriotza lotsagarri batek orbaindu egingo luke bere aitaren harrotasuna, egunero erabiltzen zuena David anaiari hil ondoren eman zioten domina distirarazteko; huraxe zen hark atzean utzi zuen gauza bakarra, zeren bitatik bat, gorputza erre egin zen abioiarekin batera edo itsasoan bukatu zuen. Eta hura izan zen arrazoietako bat hurrengo egunean berak ere Aire Armadan izena eman zezan, estetoskopioak bere bihotzaren taupada azkarrak salatuko ez zituen itxaropenaz, «bihotza azeleratu samar daukat», irribarre egin zion medikuari, zeinak baieztatu mutua azkarra egin baitzuen, zain zeudenek, irrikaz, ilara luzea osatzen zuten bitartean, ezkutuan gorde ahal izan zuen bere bihotzeko hutsegitea, bere aita zerura goizegi eramango zuen gaixotasun genetikoa, horra joaten da jende ona, izan ziren bere amak hartu zituen kontsolamenduzko hitzak, orduak eman zituen zerura begira Daviden heriotzaren berria ikasitakoan. Horregatik joan al zen John Willkinson pilotu gerrara? Edo besterik gabe hasberrientzako hegaldi ikastaro bat gaintitu zuelako, eta ikastaro labur gehiago egin ahal izan zituelako, eta, azkenean, baietz esan ahal izan ziolako gonbidapen kartelari, zeinean pilotu baten irudi lausoa agertzen baitzen, esloganak eklipsatuta: Garaipeneraino AEBetako Aire Armada. Garaipeneraino! Zeruraino! Davidengatik!

Aitak xafladatxoak eman zizkion sorbaldan, ama zerura begira zegoen, bere buruari esango balio bezala Johnek hegan egingo duela Davidenganaino, eta han dagoelarik jakinarazi behar diola amak ohe-jantziak astero garbitzen jarraitzen duela, mamuek ere non edo non atsedean hartu behar dutelako.

Hitzek metrailadore tiro jasa baten modura eraso diote, berriz ekin dio mokaduak zenbatzeari, hamabosgarrena da azkena, ogi pusketa joana da, beldurra jan du harekin batera, garuna jardun bizian hasi zaio: hegazkina nahikoa altueran dabil eta lurreko tiroek ez dute joko, eta Luftwaffe alemaniarrek nahikoa lan du bestela ere, Itsaso Adriatikoaren gaineko aire gunea zaintzen hasteko. Lehenago edo geroago behera amilduko da, izan ere, aire-metrailadore norgehiagoka ari da gertatzen, baina harrotasuna berreskuratu du: egia esan, bere ekipamendua bikaina zen, zenbait alemaniarrenarekin alderatuta, paraxuta garaiz ireki zitzaion, itsaso izoztuan erori zitekeen, eta hala ere onik atera, hotza gorabehera. Nahiz eta, onartu behar izan zuen, Luftwaffek ere ziur aski jakingo zuen bere pilotuez arduratzen.

John Wilkinson tenientea, ordea, ez da jabetzen alemaniarren arma ekipamendua hobetua izan dela, kontzentrazio esparruetan egindako esperimientuetako emaitzetan oinarrituta. Sigismund Rascher doktoreak - zuzenean Heinrich Himmler SSen Reichsführer-en aurrean erantzuten zuen-presoa erabiltzen zituen 20.000 metrotik gorako garaieretako egoera simulatzeko; lehen esperimientutik bizirik irten ziren biktimen garunetan ekipamendu medikal berri-berria erabili zuen bibisekzioak praktikatzeko, bere aurkikuntzek balio ahal izan zezaten aire armadako ekipamendua hobetzeko. Proban parte hartu zuten subjektuek beti zeramatzen soinean Luftwafferen uniformeak.

Estatubatuarrek ez zuten kontzentrazio esparrurik izango, baina haien propaganda makineria aise lehiatu zitekeen Reichstagen beraren deabruzko aparatuarekin. Estatu Batuetako Itsas Armadaren entrenamendu guneetan hemezortzi urteko gazteei galdetzen zieten ea parte hartuko zuten Lehen Mundu Gerran hain izugarria suertatu zen gas pozoitsutik babesteko arropa eta maskarak probatzeko saioetan, eta horri esker azkartu ahal izan zen Bigarren Mundu Gerraren amaiera. Ia parte-hartzaile guztiek jasan zituzten barne eta kanpo erredura latzak, baina isiltasun zina eginak ziren, eta hitz eginez gero, espioitzaren aurkako legea aplikatuko zitzaien. Esperimentu are beldurgarriagoak egin ziren Sobietar Batasuneko laborategi ezkutuetan gulagetako presoekin, haiek zenbait pozoiren eraginpean jarrita, helburua izanik jakitea zer pozoiek ez zuten uzten gai kimiko hilgarrien ez zaporerik ez usainik erabiliak izan ondoren. Eta hori kontuan hartu gabe historian zenbat eta zenbat aldiz debekatu izan diren halako arma pozoitsu «izugarri eta nardagarriak», duela zenbait mendez hasita, Frantziak eta Germaniako Erromatar Inperio Santuak arma kimikoak debekatzeko lehen nazioarteko ituna sinatu zutenean.

Baina Italiako Bari portuan gertatu zen gas pozoitsuari lotutako istripurik absurdoenetako bat. Alemaniar aire indarrek egindako aire eraso bortitzagatik - berez hirian triskantza erabatekoa eragin zuena-, batzuetan «Pearl Harbor txikia» esaten diote. Baina Historiaren begietara ezkutatuta geratu zen *John Harvey* estatubatuar itsas ontziaren suntsipena, lepo hezurreraino ziape gasez beteta zihoana, alemaniarren aurka zigor gisa erabiltzeko haiek arma kimikoez baliatzen baziren. Itsas ontziaren zama ongi gordetako sekretua zen, eta horregatik, besteak beste, mediku taldeak ezin izan zituen behar bezala artatu itsutasuna eta erredura kimikoak bezalako pozoitze sintomak zituzten seiehun eta hogeita zortzi paziente. Bari eskualdean izandako heriotza zibilen kopurua ez zen inoiz jakin izan.

Eta Barira zihoan hain zuzen Nadlesketik abiatutako garraio hegazkina. «Ordu bete barru... lurreratuko gara... ordubete... Bari», esan du Mirko Rakovnik doktoreak; harentzat estatubatuar pilotua artatzea ez da garrantzitsua bera medikua delako bakarrik, estatubatuar pilotuaren bizia partianoek salbatzeak orobat frogatzen du estatubatuar militarren eta partianoen arteko akordioak baliagarriak direla.

Tenientea esker onez gainezka dago, bostekoa emateak sendotu egin ditu medikuak ingelesez mordoilotutako hitzak, eta tenienteak bere golkorako errepikatu du informazioa, hitz motelak aditu ditu, medikua zerbait esplikatzen ariko zaio norbaiti, bere eskuinera pertsona bat doinu bat txistukatzen ari da, melodia atzematen saiatu da, zaurituek hura abesten zuten, ikasten ere ahalegindu zen, baina ez zuen lortu, eta horregatik nahiago zuen Detroitekin bere haurtzaroko kantu bat abestea, «The Wabash Cannonball»: *Ozeano Atlantiko eskergatik Pazifikoko itsasertz zabalera / hortxe doa, mendiz mendi kostalderaino / handia da, eta ederra, eta denek ezagutzen dute / hortxe doa, ziztu bizian, Wabash Cannonball trena...*

Kantatzen ari zen, besteak beste, haurtzaroak bizirik iraun zezan bere baitan; kezkarik gabeko arrats haietan ama irratia entzuten aritzen zen, eta berak, berari ere entzun ziezaion, tren bati buruzko kantu herrikoi bat ikasi zuen, lokomotorraren txistu hotsa ere gaineratzen zuena indar gehiago emateko, azkenean bere kantua nahasi egiten zen amaren barre algarekin, eta beti da atsegingarria ama barrez ikustea. Eta hori bereziki egia zen Mary Willkinson andrearen kasuan, bere bi semeen hazieran ipini baitzuen bere debozio eta zorroztasun guztia.

Gutuna idatzi beharko diot amari esateko oraindik ez naizela anaiarekin futbolekin ari hodeien gainean, irribarre egin du; beharbada, samurtasun oldar batean, esango dio neska bat ezagutu duela partianoen ospitalean, erizain gazte bat, bioleta koloreko begiak dituen, berarenak bezalakoak, eta ezkutatu egingo dio huts egindako lurreratzearen ondoren konortea berreskuratu zuenean ikusi zuen emakumearen aurpegia berarena zela.

Irudipen hutsa zen hura, lurretik pasatu zuen eskua, lur hotz latz harritxoekin nahasi haren gainetik, zuhaitzak eta bere larruazaleko erredurak bizirik zegoela jakinaraziz laztantzen zituen haizea bezain errealetik; ados, zorioneko zenbakia da zazpi, nahiz eta begiak zabaltzeko ahalegin guztiek tentsio bizia eragin... Hari behin eta berriz begiraten zion, emakume baten irudia ezin daitekeela desagertu esaten zion bere buruari, hura txorrotxioka ari zen hizkuntza arrotz batean, ez, hizkuntza hori ez da txorrotxiokatzen, bor-bor baten antzekoa da, erreka bat harrien gainetik pasatzen, emakumeak hatza zerura zuzenduta eduki arren. Tito, partianoak, esan zuen berak, zer moduz doakie, estatubatuar paraxutista guztiek zeukaten prest galdera hura, aliantza baten sinboloa; emakumea buruarekin baiezkara ari zen, altxatzen lagundu zion, indartsua zen, tenientea haren sorbaldan bermatu zen, begiak ixten zituen tarteka, haren ondoan saltoka zihoan, zangoan sekulako mina sentitzen zuelako, baina emakumeak bor-bor jarraitzen zuen hizketan besotik helduta zeraman bitartean, nora zihoazen zehatz-mehatz baleki bezala. Bera deseroso sentitzen zen haren mendean zegoelako, bere amaren antza zuen atso zahar baten mendean, eta aldi berean askapen moduan sentitzen zuen bere bizitzaren ardurara haren sorbaldetan zegoela pentsatzea. Ukuilu suntsitu batera eramane zuen, azienda arrastorik ez zegoena, lasto kirastua bakarrik, emakumea zerbait esaten ahalegintzen ari zitzaion, berak soinak goratu zituen, zer beste egin zezakeen, bere ikusmenetik argia desagertzen ari zen osterara, begiak bildu zituen, agian lokartu zen, lokartu egin zen inolaz ere, ilunabarra hedatu bitartean, eta gero buruan txanoa zeraman gizon baten aurpegia bere gainean zintzilik zegoen, izar gorri bat zeukan txanoan, zirrara gehiago eragin zion berari izarrak geroago ospitale partianoako garraioa antolatu zuen gizonak baino.

Izar bat, bost puntako izarra, santutasuna gizakiaren parte bat dela iragartzen duen pentagrama bat, Jesukristoren bost zaurien sinbolo, sorginen eta deabruen aurka babesten duena, Mary Wilkinson andreak bere semearekin baieztatzen zion bezala fedearen misterioetan barnetatzen hasten zenean, zaldunen bost bertuteak gogoraraziz; eta, gauzak horrela, tenienteak nola ez zuen bada zirrara sentituko izarra ikustean; gainera, gorria zen, aliatu partianoaren sinboloa, nahiz eta Armada Gorriko kideek erabili lehen aldiz sozialismoaren bide garailea zabaltzeko, eta nahiz eta Sobietar Batasuna sortu aurretik AEBetako Aire Armadak ere erabili izan bere hegazkinetan Pancho Villa mexikar iraultzailearen mugimenduak kontrolatzen zituztenean, sinbolo aldaketa interesgarria, zioen aire entrenamendua hartu zuen kuarteleko ofizial batek, ez alferrik soldadugaiei orobat irakasten baitzitzairen nolako garrantzia zuen sinbolo bat une egokian ezagutzeak. Eta huraxe zen une egokia.

Partianoaren ospitalean emandako gainerako egunak iluntasun iraunkor batean murgilduta zeuden, eta, hark iraun zuen bitartean, goizeroko lotura berritzez markatzen zioten egunen joana, harik eta goiz batean, bere hegazkinak lur jo eta hamar egunera, Mirko Rakovnik doktoreak loturak kendu zitzaion eta bere begiek argitasunaren aurrean erreazionatu zuten arte, estreinako aldiz ikusiz Detroit,

zeina hasiera-hasieratik entretenitu baitzuen bere meatze istorioekin eta kantuekin, eta hori galdera larriagoak egiten ez zizkionean beste norbaitek lagunduta zegoen bakoitzean: ahots latzeko gizona bera, jakin nahi zuena nondik, nora, zer eta zergatik, eta tenienteak galdeketa bat egiten ari zitzaizkiola sentitzen zuen, baina hala ere lasaitasunez erantzuten zuen; gainera, ez zitzaion iruditzen ezkutuan edukitzeko ezer zeukanik. Eta batzuetan bururatzen zitzaion Detroiten ulertzen ote zuen esaten ari zitzaion guztia. Baina horrek guztiak ez zeukan inolako garrantzirik bioleta koloreko begiak zituen erizaina sumatu zuen arte; behin estropezu egin eta ohearen kontra erori zitzaion, eta zerbait esan zuen, seguru asko birao bat, Detroiten barre egin zuen alboko ohetik, eta gero itzultzaile lanetan aritu zen neska ere ingelesezko esaldiak erabiltzen hasi zen arte, berarekin komunikatzen saiatzeko ohea, janaria, eguzkia, begiak, sudurra, izarra eta antzekoetatik harago.

«Ez nion agur esan», John Willkinson tenientea tristatuta dago, dena oso bizkor gertatu zen, alde egin behar zuen egunean ez zuen ikusi ere egin, edo agian bertan zegoen begiak estali eta angarila batean etzan zutenean, hanka oraindik zurezko trepetan baten barruan zeukala, igeltsuaren ordezkoa, Detroiten botilako belar pattarra lasaigarrien ordezkoa zen bezala; mina mirariz bezala joaten zitzaion bere erizainaren besoa ukitzen zuen bakoitzean ere. *Bere* erizainaren besoa. Inguruko besteei ere arreta bera jartzen ote zien, bere ohean luzeago geratu ohi zen, luzarago inondik ere, bestela Detroiten ez baitzion «begi onez ikusten hau» esango, eta horrek barrea eragin zion barruan, gerra garaian ere gauza zoragarriak gerta zitezkeelako.

Eta orain erizainaren barre algarak etorri zaizkio berriz burura, ingelesezko hitzak ikasteko bere ahaleginekin batera egiten zituen barre algarak, bat-batean tenienteak sumatu du abioia jaisten hasi dela, dardarak itzuli zaizkio, ezagutzen ditu Bariren koordinatuak, 16° 45' 57", 41° 08' 21", zenbakiekin jolasean ari da berriro ere, hegazkinak behera egin du, aspertu egin da iluntasunaz, eskuak begietako loturetara eraman ditu, baina esku pare bat lasterrago mugitu da, neska esku ezagun pare batek begiak desestali dizkio, eta berak, harrituta, oihukatu du: «Martina!».